

¿BIGARTE?

¡JAJA!



Olaizola'tar Joseba

V
9



IRATXE

Librería Anticuaria
PAMPLONA


M. 20417
R. 11263

A.T.U.

9.039



¿BIGAR ARTE? ¡JA JAI!



¿BIGAR ARTE? !JA, JAI!

OLAIZOLA'TAÑ JOSEBA'K IDATZITAKO AN-
TZERKITXOA.-1919'g. URTEAN, DONOSTI'KO
UDALA'K ERALDUTAKO ANTZERKI BATZAL-
DIAN LENENGO SARIA IRABAZI ZUAN AN-
TZERKITXO ONEK, ETA BERTAKO
«EUZKEL ANTZEZTI IRAKASTOLA'K»
LENENGOZ, URTE BEREKO
DELIN TOMA AĀATSAL-
DEAN TXALO -JASA
AĀTEAN ANTZEZ-
TUA.

LOYOLA'TAÑ ENEKO DELINA'REN
IRARKOLA. DONOSTIA, GARIBAI, 28

THE HISTORY OF THE CITY OF BOSTON

FROM THE FIRST SETTLEMENT
TO THE PRESENT TIME
BY
JOHN HUTCHINGS
OF THE BOSTON BAR
IN TWO VOLUMES
VOL. I.
BOSTON: PUBLISHED BY
J. B. ALLEN, 1825.

THE HISTORY OF THE
CITY OF BOSTON

Alzaga'tar Toribio

«Euskal izkera ta
iztunde ikastola» ko

Afiezkarri ta euzkel-antzerki idazlari
ospetsua'ri.

BANAKETA

ANTZEZNOTIÑAK

Maalentxo... *78 urtekoa.*

Mañtolo... *78 »*

ANTZERTILARIAK

Olaso *andere.*

Alberio *jauna.*

Donostiya'n gertatzen da.

ATAL BAKARA

Orain urte batzuk Aldefdi Edef'en zegon «Ruso-Mendiya» eguzkitan ageftuko da. Itxas-aldera afiz'ko jafleku bat ere biar du.

LENENGO AGEALDIYA

MAALENTXO

(Berorixe, emakume lodi ta patxara aundikoa ezik, apain zalea da, txiroa izan-afen; alaxe jantziya ageftuko da, ba: ondoneyan eta beltzez, baño txiroa dala igartzeko eran).

MAALENTXO (*Jaflekura datořela*)

¡Ja, ja, ja! Egunero'ko nere jaflekua utsa dago, nere zai bezela... Aundizkiyen jauregiyetan ere politagorik ez-dagola esango nuke. Donostiyak duban tokirik ederenian bai-dago... ¡Aldefdi-Edef'en!.. Aurēan dauka itxaso zabal aundiya, urdiñ, urdiñ... Beraren uin motel eta bareak, iya, iya nere ofietaraño irixten dira nere ofiai muñ egiti nayan bezela... Itxas-txoriyak beriz... egalak zabal, zabal dituztela aize gañean dabilta...; beñi berantz, beñi gorantz, beñi aruntz, beñi onuntz... nere buru gañean... zoragañizko beñi onen bat nere belari ertzera esanaz nerekin jostatu nabaluteke bezela... Txalopak ere, txoriyak bezin lirain eta politik, eta berak beñi ariñak, badijoaz... bai-datoz... Eta an Igeldo, Igeldo-mendi, maitea maitea'ri beñere aspertu gabe begira egoten dan bezela, bere eřayetako Donosti maitea'ri begira... Gero, Afatzain, Mendizorotz... Eta emen, nere atsean, itxas-aize legunak eztiro, eztiro aztintzen dituan zugatz adarētan txo-

ritxo befitxoak txio, txioka, beren abestiz nere bazkal-
ondo'ko lo-kulaxka atsegindu nai baluteke bezela...

¡O! ¡Zein toki atsegintzua dan menditxo onen al-
derdi aul

Jafi nediñ ba, nere jarlekuan, jafi nediñ... (*exeriaz*)
orélaXe, ¡taka!

Eguzki epeletan, eta itxasaizea bara-bara arpegira
datorkidala ¡zeiñ ederkil! lotan... ametsetan... (*Logu-
ria balauka bezela, begi'k pizkatxo bat itxitzen ditu*).

(*Besterantz begira*) Beste alderdi orek ez-nau bete-
tzen; nolabaiteko asko biltzen bai-ta... arloteak, edo...
Eta ni bezelako andre bat oyen artean egotea itxusi da:
¡Esango nuke! Andre Afoxa'ren alaba'k ukalondoa
gorago dauka. ¡Noski!

Emen, ordea, bein lotan, bein esna, oso ondo ego-
ten naiz. Gafiara, laguntxo'ren bat nere ondoan jartzen
bada, batere igari gabe orduak joaten zaizkit.

Atso bezela: ementxen ber-berian, nere ondoan ai-
ton bat exeri zan, eta au esan eta ori esan, alakoxe
atzaldia igaro nuban. ¡Ja, ja, ja! Nik ere asmo orekin
artzen bai-det ba, bi lagun exeri litezken aulki zabala.
¡Noski, bai! ¡Ja, ja, ja!

Beste aulki oyek oso txar'ak ez dira, noski, estulka
ta doministikuka egon nai duten atso mearentzat, or-
dea, ni bezelako emakume mardul eta apasiarentzat
zabala ta patxarakoa nai litzake. ¡Bai orixe, Maalentxo!
(*Lo-kuluxkan buru-erorketa bat edo beste egiten du*).

(*Beriala esnatu-ta*). ¡Oi, ene! ¿Atso trankal ori
onera ote dator? ¿Nere ondoan exeritzeko asmoa ote
dakar? (*Indafez*) Ez-aiz ba exeriko. ¡Ez orixe beintzat!
(*Gonak zabaldu-ta aulki guziya bete nayan*) guziya
beteko banu. ¡Ezin ordeal (*Bere gorputza ere zabal-
du nayan*). ¿Ia onela? ¡Bai, bai! Trikulu-xamar nago,

baño atso frankal oñen ondoan ez-egotearen zerhait egin liteke. Gero... nere gogoko'ren bat agertzen bada bildu ta estutu'ko naiz, eta ua or, (*erakutziyaz*) eta ni emen ¡bapo Maalen! Alakoxe atzaldia igaroko det. (*Lo bezela jañita buru erorka batzuk egiten ditu. Zuringa bat edo beste ere egin lezake*).

BIGAREN AGEÑALDIYA

MAALENTXO TA MARTOLO

(Martolo ere aberatza ez izan ezik, sonbrañu ta lebitatxoarekin jantziya ageñtuko da. Ofdea, sonbrañu ta lebitatxo gaur' egindako beñi-erakoak ezdala igartzen zayo. Bere mintza-erak alaya izango da).

MARTOLO

¡Ja, ja, ja!.. ¡Au egoalditxoat ¡Au egoaldi lasaya! ¡A! zeñ nolako añatsaldia igaro biar detan! Martolo; oñelako egoalდიyarekin edozein egoten dek sukalde xuloan sartuta. ¡Ni ez beintzat! Ja, ja, ja!.. (*Alde batera ta bestera begira*).

Aulkitxo bat bilatu'ko banu. Guzik beteak daude ordea. (*Sugua'ri eragñiaz*). ¡Ju, ju, ju! (*Maalentxo'ri begira*). Eta, lastaida zar oñek zer egiten du bi-jarleku'ko aulkiya bakarik artu-ta? Astindu aldi bat artu beñ du oñeatik. (*Maalentxo esnatzera dijoa, ta une ontan zurunga aundi bat egiten du Maalentxo'k. Zurunga oñekin izutu ta atze-aldera egñiaz*). ¡Ene! ¡zeñ nolako zeñi koskoñ! edota ¡mando-euliya! ¡Ori zurungal!

MAALENTXO

(*Esnatu-ta lañitua bezela*). ¿Nik zurunga? ¿E?

¿nik zurunga? ¡Oi! ¡Atsoko aitona! (*Beriala gonak bilduta Martolo'rentzat tokiya egiñ nayakan*).

MARTOLO

Zurunga edo... Mamelenen baten tuturutua ez-bazan... ¡Ja, jai. Ikusiko san, ¡lanbasa!

MAALENTXO

(*Alaiki*). Bedorri zan beraz?..

MARTOLO

Bai andrea.

MAALENTXO

(*Gorputza al-dubana estutubaz Martolorentzat tokiya egiñ nayakan*). Emen nago bakañik aspertu-ta, nere buru gañean dabiltzan itxas-txori oyei begira.

MARTOLO

(*Fai-eran*). Itxas-txoriyai begira, bai... ametsetan.

MAALENTXO

Ametsetan ez, egiiyetan; begira nola dabiltzan. (1)
(*Gora begira*).

MARTOLO

(*Gorantz begira*). Ikusten ditut bai; ¡ja, ja, ja! Baita zu ere nabaitu zaitut ametsetan edo... oruka edo...

MAALENTXO

Bai zera... nere loa aur txiki batena baño ixilagoa da, ta...

MARTOLO

Zuk bai uste... ¡ja, ja, ja!..

Leku pixka bat lagako bazenidazuke...

(1) Txori-txiu bat edo beste egiñ albaliteke...

MAALENTXO

(*Gorputza geyago estutubaz*). Bai orixe beintzat, eta pozik.

MARTOLO

(*Exeriyaz*). Eskefik asko.
Beste alde orfara ez det jun-na! izaten.

MAALENTXO

Ez-ta nik ere.

MARTOLO

Nola-baiteko jendiak biltzen dira ta..,

MAALENTXO

Trakets alakoak... (*Bere buruai aunditasunezko keñu-alako bat egiñaz*) arloteak...

MARTOLO

Erdeldunak, edo... erdel-zaleak, edo...; euzkeraz itz bat ere etzayote entzuten beintzat eta... Koxketa-koak diranik... naiko lan... naiko lan,.. nere sugua luzea da... ¡u!..

MAALENTXO

¡A! ¡Gure gazte-aroko Joxe-Maritafak non dira!

MARTOLO

Ori esazu; ori esazu. Eta gure orduko gauzak?

MAALENTXO

Orduko Joxe-Maritafakin batean galdu ziran.

MARTOLO

Gauza zafak galdu, ta bizikera zaildu. Befikeriyak ori ekañ du.

MAALENTXO

Esango nuke.

MARTOLO

Esan-dezatela bestela gaurko afokeri ta naspilak.
Esan dezatela askoren arteko apainkeri ta ezin bizi-
yak... esandezatela, esan...

MAALENTXO

Bai; ;zenbat malko! ;zenbat negar!..

MARTOLO

Baia, oyek etxean... ixilik...; Klean ordea...

MAALENTXO

Klean afo, afo.

MARTOLO

Ori da, ba... Baia guk, denbora batean lau sakur
aundiyan legats osoa etxera, Eta oraingoak?..

MAALENTXO

Oraingoak sabel utsa oyera.

MARTOLO

Denbora batean Loyolan eta Ernani'n guk jaten
gibun bezelako afai-gori buru aundiya gaur nork jan
litzake?

MAALENTXO

.Gu bezelakoak ez.

MARTOLO

Gure orduko jatorduak gaur'ko zenbait tontor afo'
ren jatordua'ren lotsakisunik etzuan.

MAALENTXO

(Año). ¡Ez orixe!

MARTOLO

Legatz-burua zala; pinpiñua zala; Katu-añaya zala; bixigu, atun zuri edeña, aroka-arteko añaya... guzitik, guzitik gure etxeetako Kaxueletan gil-gil-gil agertzen zan.

MAALENTXO

(Año). Bal-ta beste atsapañ-luzedun zomoño-goriyak ere.

MARTOLO

Eta gañerako lagun artean egiten gifiñuen arratzaldeko xaltxak?

MAALENTXO

Beñiz esan.

(*Izketa-aldi au geroago ta alaiago ta pizkofago joango da*).

MARTOLO

Kupel-baztañ-eko lapa ta karakelak? ¡Ayek sagardoak! Kataliñ, bete amabi-gañena.

MAALENTXO

Eta zenbat amabiko ¿e?

MARTOLO

¡Ayek aratsaldeak! Eta San Bisente'ko koxketako egun lasayak? Emendek, emendek soka-muturá.

MAALENTXO

(*Izutu-ta bezela aztunki itzuli asten da*). ¡Ay, ama!

MARTOLO

(*Algaraz*). ¡Ja, ja, ja, ja! Ez izutu emakumea; oraingoak ezdute jotzen-da.

MAALENTXO

(*Lengo tokiyan exeriyaz*). Egiya, egiya... ta soka-mutufa zalakoan...

MARTOLO

Zu itzulka? Ez nola-naiko burundararekifi ere. Zu zefiek arapatu.

MAALENTXO

Oraingo zezenak ez beintzat.

MARTOLO

Ez-ta lengoak ere; kendu zituzten-da.

MAALENTXO

Donostiaf-usai'ko beste gauza asko kendu dituzten bezela.

MARTOLO

Bai; batzubek kendu ta besteak galdu; ¿Donosti-afok lengokoen antzik ote daukagu?

MAALENTXO

Osta... osta...

MARTOLO

Lenago gure jostaketak, Donostiaf zafak izan zituztenak ziran.

MAALENTXO

Eta pozgarriyak.

MARTOLO

Alaigariyak.

MAALENTXO

Ategoriyetako danbolin sofñutzaz oroitzen zera?

MARTOLO

Nola ez ba? (*Exerita dagon tokiyon dantzatu nai balu bezela ankak erabiltzen ditu*).

(*Erdi abestuaz*). Ategoriyetako danbolinteruak
jotzen du sofñua,
jotzen du sofñua.

(*Izki gabe abestiya zerbait luzatu lezake*).

(*Martolo abestutzen ari dan bitartian, Maalentxo'k, exerita dagola, ta besoak jasota Kriskitiñak joaz dantz-itxuran gorputza erabili'ko du*).

MAALENTXO

¡A! ¡Gure gaztearoa! ¡gure gaztearoa!

MARTOLO

Gaztea nintzaneko nere kriskitiñak entzun bazi-fuen...

MAALENTXO

Eta nereak?

MARTOLO

Eta nere biurí, ta txorotxak?

MAALENTXO

Eta nere arintasuna?

MARTOLO

Eta nere aupadak eta anka-mutuñen gañeko biri-

blak? (*Itintziz bezela*). ¡A! ¡mutilak! ¡Orduko nere sasoya! Gaur al-banuke ikusiko zenduke Martolo zeintzan

MAALENTXO

(«*Martolo*» entzunik afitu-ta beretzat). ¡Oi! ¿Martolo?

MARTOLO

Kandelariyoetan Artzai-lñudeak egiten genduban jai artan, nik dantzatzen nuban zortzikoa... ez-ta Zal-dibi'ko artzayak ere ain ondo dantzatua...

MAALENTXO

Ez, noski; ez noski.

MARTOLO

Eta Donosti-jai eguneko tanbofadan, nere egokitasuna? Oraingo gazte askok naiko luke...

MAALENTXO

Bai noski; bai noski.

MARTOLO

(*Geroago ta beroago*). Eta soka-muturán? Inñigo'rik kostituziyo'ra ni arapatu ninduben Lastur-tarik Donostiyan etzan sartu.

MAALENTXO

(*Lerdia dariyola*). ¡Ja, ja, ja, ja!

MARTOLO

Eta... eta... gaur?... jankik jaso eziñ! (*Atseger*) Nintzana... ta naizena... au ¡sinistu eziñ!

MAALENTXO

Baña sinistu bea'...

MARTOLO

Bai noski... Oriamendi, Ernani... ¡O! ¡Bide ta efi
oyen oroipena, zelfi atzegintzu sortzen dan biotzean!

MAALENTXO

Nerean beintzat bai. Ikusten danez zurean ere...

MARTOLO

¿Nolaz ez-ba, emakumea? Nere emezortzi urtetki
beñogei'raño, ez, beñogel ta amañ'eraño bitartean
Oriamendi-bañena Ernani'ra zenbat aldiz joan naizen,
Jainkoak bakariñ daki.

MAALENTXO

Zalea nintzan neroni ere.

MARTOLO

Batez ere, ogei, ogeita bost urte nituen garayan,
ua gaztediya joaten gifiñ... pila'ka, sail'ka. Irintzi'
ka, aupa'ka, dantzán... gure artean etzan negariñ,
alaitasuna bai.

MAALENTXO

Izan ere, orduko gazteak alayak ziran.

MARTOLO

Alayak eta onak.

MAALENTXO

Batez ere, Joxe-Maritxo bai...

MARTOLO

(Afitu-ta beretzat) ¿E? Joxe-Maritxo?

MAALENTXO

(Jafaituaz bezela) Pepitotxo,...

MARTOLO

(*Beretzat. Geroago ta ařituago*) ¿Nere lagun en izenak?

MAALENTXO

(*Itza'ri indar geyago emanaz*) Martolotxo... Martolotxo...

MARTOLO

(*Oso ařitu-ta. Beretzat*) Bafia... ¿nere izena? Ta... ¿au nor degu?

MAALENTXO

Ezin astu zaizkiten urteak... eta joroipenak!

MARTOLO

Oro-bat nerl ere.

MAALENTXO

Eta... gaur oroipena bezterik ez... Oroipenatik bizi gaitzen ba.

MARTOLO

Eta oroipen ona ohea da, egi gařatza bafio.

MAALENTXO

Diozuna egiya da: oroipen oyek neretzat atzegintzuak, dıra, nere bizi-laguna'ren ondoan daukadan bizikera ez ordea, gařatza bafio, ta oso gařatza.

MARTOLO

Ořa, ba, non ikusten dezun : oroipen ona, atseginařı, eta egiya, zuk daukazun bizikera, miřgařı.

MAALENTXO

Ementxen, eguzkitan igarotzen ditudan ařatzalde atsegintzuak igaroko ez-banıtuke, uste det, bizi-laguna'ren bastarean beti egon beařak il-erazi'ko nindukela.

MARTOLO

Ikusten denez bizi-laguna'ri beldur aundia diozu?

MAALENTXO

Aundiya, geyago ezli-ala.

MARTOLO

Okei aundiya da ori. Beldur geyegiyak adiskideta-suna aldentzendu.

MAALENTXO

Gu-gandik aldendu dan bezela.

MARTOLO

Zakartxoa alda, ba, edo zer?

MAALENTXO

Zakartxoa ez, zakara, oso zakara.

MARTOLO

¡Emakumea!

MAALENTXO

Ua ezda emakumea, basurdia bafio, ta basurde go-setiya. Ay ua arpegi beltza, arena; ez-ta pertza-epur-di'rik ere alfi beltzik.

MARTOLO

Aiñ beltza ba-da, egiz bai dala beltza.

MAALENTXO

Eta itzusiya, ontza-mutua bezela.

MARTOLO

Itzusiya izan bear, ontza bezelakoa ba-da.

MAALENTXO

Aren purustadak, aren ostikadak, aren karaxik...
!Ene Jaungoiko maltea, ze atso zar da ori!

MARTOLO

Diozun bezelakoa ba-da, beldurgafia bai dala.

MAALENTXO

Bateko, oliyo-ontziya utsa dagola, besteko ikatz geyegi efitzen detala...; tipula dala, baratzuriya dala, piper-autza ta gatzarekiñ nere bizitza gaxoa gazitua dauka.

MARTOLO

Toki askotako otsak dira ots oyek.

MAALENTXO

Su-ondo'ra inguratzen banaiz, beriala uxatzen nau, sua ni bero'tzeko ez-tubala egiñ esan-da. Eta sukalde'ko baztaren batean exeritzen banaiz, jene Jaun ona! jneri esaten dizkiranak!.. bateko, alper-lasai bat besterik ez-naizela; besteko, lñork egindakua jateko edera nai-zela... eta, lotsagabe arek neri esaten ez diran gauzik bai oleda?

MARTOLO

Begira, begira: zuk ere zere garaylan senartxo bat artu izan bazenduban, gaur etziñan noski ofela ibiliko.

MAALENTXO

Zer nai du-ba? ¡Ala balitz! ¡Nork daki! ¡Ene Jainkoa!

MARTOLO

Zu, ta ni bezela mutil zar eta neska zar gelditu geranok, ez-daukagu ba iñoiz ofazetzea baño.

MAALENTXO

¡Iñoz balitz! Beti, ordea, beti.

Eta, eta, beraz bedori ere mutil zara da?

MAALENTXO

Bai andrea, bai.

MARTOLO

Eta, eta... bedorén bizi-laguna ere zakaña izango da ¿e?

MAALENTXO

Pixka bat...

Orduban gaizki biziko da ¿e? Ni beintzat oñela bizitzen aspertua nago ta...

MARTOLO

(*Izeka*) Zere garayian senartxo bat artu izan bazenduban...

MAALENTXO

(*Berdiñ*) Eta bedorék emaztetxo bat artu izan bazuban...

MARTOLO

Ni nere añeba Kataliñekin oso ondo bizi naiz.

MAALENTXO

Emazte on batekifí biziko zifíaken bezifí ondo ez ordea...

MARTOLO

Oralfi onuzkero... (*Beretzat*) Atso zaí au erotu ote da? Begira zazu, nik ere nere garayan beste askok bezela nere asmotxoak izan nituban...

MAALENTXO

Noski.

MARTOLO

Donostliyan bazan Maalentxo bat...

MAALENTXO

(*Oso poztua beretzat*) ¿Oi? Nere izena.

MARTOLO

Polita, politen artian.

MAALENTXO

(*Oso pozas*) ¡Jesus, baña!

MARTOLO

Nere emaztetzat nai nubena orixe zan.

MAALENTXO

(*Beretzat*) Baña nere senar-gai izandako Martolotxo au oteda?

MARTOLO

Maalentxok ori bazekiyeñ; eta bere begiyak eta neriak maiz elkar bilatzen zuten.

MAALENTXO

(*Pozas*) Martolotxo da bai. ¡Jesus, Jesus!

MARTOLO

Gure lagunak *inbiri* piska bat baziguten.

MAALENTXO

(*Beretzat*) Egiya, egiya. ¡Jainko ona! Gaztetan elkartu ez-gifana, orain elkartu biar otedegu ba? (*Pozas*).

MARTOLO

Ni dotoria banintzan, Maalentxo etzan gutxiyago.

MAALENTXO

Esango nuke (*Año*).

MARTOLO

¿E? (*Jañaituaz*) Baña gaur, *Ruso-mendi* ra etortzen dan agure traketzena naiz.

MAALENTXO

(*Beretzat*) ¡Bai zera! Aitonik politena.

MARTOLO

Eta Maalentxok zer egin ote du? Onuskero ua ere luña'ri anak ezin kendurik ibiliko da.

MAALENTXO

(*Beretzat*) ¡Ez orixe! Ez-banago ba oraindik ere andre moñofia. ¡Esango nuke!

MARTOLO

Baña... ipurtariña zan. Ori zala ta gure asafea sortu zan ba.

MAALENTXO

(*Beretzat*) ¿E? ¿e?

MARTOLO

Maalentxo, Andre edeña'ren alaba zan.

MAALENTXO

(*Beretzat*) Nere ama.

MARTOLO

Eta, ama eder, eta alaba ere eder. Ezer ez egitea'ri ederiritzi zion, eta an ikusiko zenduben, ez jostuañatz bat artu, ez ontzi bat garbitu, ez eltzersik egosi, pinpilnpauxa baño afoago jantzita, goizetik añatzera Martolotxo'ren epurditik.

MAALENTXO

(*Eziñ eramanik egongoda ta gero dio*) ¡¡Gezuña!!

MARTOLO

¿E?

MAALENTXO

Gezura... gezura dirudiyela emakume gazte bat
ofelaku izatia

MARTOLO

Eta esango banizkizuke beste gauz asko...

MAALENTXO

(Lafi) Ez, ez, ez, ofelako gauzak entzun-da mifiez
jartzen naiz ta.

MARTOLO

(Jafaituaz) Enasa zan, lasaya, lufera makurtzen
etzekiyen...

MAALENTXO

Bafia... bafia...

MARTOLO

Azkenian, musurik garbitu gabe autzez zuritzen
ikasi zuban...

MAALENTXO

Bafia... mifi egin biar zaitela.

MARTOLO

(Jafaituaz) Nere gurasoak, asmo onarekifi-da,
eskontza ori galerazi egin ziraten.

MAALENTXO

¡Ene Jesus!

MARTOLO

Eta ona, mutil xartu-ta, aguretu-ta... etxetik eliza

ra, elizatik onera eta emendik etxe'ra... ¿Nolaz nai dezu, ba, ni orain ezkontzia?... ¡Ja, ja, jai! ¿Aren antzeko andre lastaida bat artzeko? ¡Ez orixe! (*Iluntzen astenda.*)

MAALENTXO

(*Aseñe jeikita*) Banua, banua eguskiya itxaspean sartu da-ta.

MARTOLO

Egiya, egiya; ilunabaña da. (*Martolo ere jeikitzen da.*)

(*Maalentxo'ri*) Beraz, bizi-laguna'ren ondora, sukalde bastañera ¿e?

MAALENTXO

(*Iluntxo*) Bai, jauna bai. Nere bizi lagun maitea'ren ondora.

MARTOLO

Ondo, ondo. Ni beñiz, nere aña Katalintxo'ren ondora, onuzkero apaltzeko katu-añaya kaxuelan gilgil egokiko du-ta. Beraz...bigarte ¿e?

MAALENTXO

¿Bigar arte? ¡Ja, jai! (*Badijoa*)

MARTOLO

(*Malentxo'ri begira*) ¿E? ¡¡¡Ja, ja, ja, ja, jai!!!... (*Era oftan daudela Zapiya jeisten da.*)

AMAIA

OARA.—20'gafen ofialdean « Zef nai du-ba? ¡Ala balitz!... » dion tokian, beste era ontan esan biar du : « Zef nai du ba? ¡Bakoitzaren zoriya! (*Beretzat*) Au ere mutil zafa ote da? ¡Ala balitz!... »



THE
JOURNAL
OF
THE
AMERICAN
MEDICAL ASSOCIATION
PUBLISHED WEEKLY
CHICAGO, ILL., U.S.A.
1917



